FES TAI Nafarroako jaialdiak

# Alwin Nikolais eta Murray Louisen baleten emanaldia gaur Gaiarren

## Lizarran berriz opera, antzerkia, sanba eta dantza datorren astean

**Bost koreografia eskainiko ditu Alwin Nikolais eta Murray Louisen dantza garaikideko konpainiak. Bestalde, atzo egin zen Lizarran izanen diren emanaldien aurkezpena.**

I.I. / IRUÑEA

Alwin Nikolais dantza garaikideko aintzindari izan da azken hogeitamar urteotan. Bere koreografietan dantza, bideoa, zinea eta telebistako hizkuntzak bateratzea lortu du. Musika, koloreak, argia eta dantzako mugimenduak nahasten ditu bere ikuskarietan 79 urte dituen iparamerikar honek. Murray Louisek berriz pintura eta eskulturako kontzeptuak sartzen ditu egiten dituen lanetan.

Duela hiru urte elkartu egin ziren, «zeren nahiz eta koreografia desberdinak egin, dantza berdin sentitzen genuen biok. Dantza guretzat mugimenduaren artea da», Louisen esanetan. Gaur 20.00etatik aurrera bost pieza eskainiko dituzte Gaiarre Antzokian: 'Temple', 'Schubert','Liturgies', 'Asignature' eta 'Ceremonies'. Koreografoek prentsaurrekoan adierazi dutenez, baliteke piezaren bat ala ordena aldatzea ikusentzuleen erantzuna ikusi ondoren.

Bestalde, Lizarrako egitarauari hasiera emateko Mozarten lanak abestuko ditu Sofiako Opera Nazionalak Lux Zine Aretoan bihar gaueko 9etatik aurrera. 'Figaroren ezkontzak', 'Flauta magikoa', 'Don Giovanni' eta 'Cosi fan tutte' osatzen dute entzuteko aukera izanen dugun errepertorioa. Bakarlari gisa Darina Takova eta Valeri Popova sopranoak, Mintxo Popov tenorea eta Alexander Krounev baritonoa arituko dira, Mikhail Angeloven zuzendaripean. Joan zen larunbatean Leketion izan ziren Sofiako Opera Nazionalekoak, bertako Itsas Soinuen Jaialdian parte hartzeko.

Ordu berean eta Lux Zineman berrriro Madrileko Strion Konpainia berriak 'Entre bobos anda el juego' bere lehendabiziko muntaia taularatuko du. Rojas de Zorrillaren lanarekin estrenaituko den taldeak antzerki klasikoaren formula zaharrak berriztatu nahi ditu. Sortzaileak Aitana Sanchez Gijon, Fernando Guillen, Alberto Abad, Angel Garcia eta Alberto Muyo aktore gazteak dira.

Asteazkenean, Brasil Brasileiro taldeak kalejira eta salsa show berezia eskeiniko dute. Ostegunean, Avelina Argüelles Dantza Garaikidearen Konpainiak bukaera emanen dio Lizarrako egitarauari. Arguelles dantzari eta korografo katalanak 'Ahora me toca bailar con la mas fea' azkeneko muntaia aurkeztuko du.




Mikhail Angelov eta Mintxo Popov, Sofiako Opera Nazionalekoa.



Gaur ere dantza garaikidea ikusteko aukera Iruñeko Gaiarre antzokian.


IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

oskorri
Disko berria
bi ere dantzari
Kontratuetarako (94) 416 31 22

LES MECANICIENS
MUSIKA TALDEA
KONTRATAZIOAK: (943) 63.09.50

SENDAGILE DENTISTA
J. M. ARIZALA
ASEGUROAK: Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa, Ipresa, Medifiata, Salud Data
Ferrerias plaza, 5-entr.
Tfna.: 45 90 45
Amara DONOSTIA

34x37mm

34x37 MODULOA
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

34x37ko BI MODULO
EGUNBAT 3.360pta/168l.
ASTEBETE 16.640pta/832l.
BI ASTE 28.800pta/1.440l.
HILABETE 40.400pta/2.200l.

34x37ko LAU MODULO
EGUN BAT 6.720pta/336l.
ASTEBETE 33.280pta/1.664l.
BI ASTE 57.600pta/2.880l.
HILABETE 80.800pta/4.040l.

Bidaiak Viajes TXINDOKI, S.A

JIRA
PORTUGAL BUSA 9 EGUN ........ 38.900 pta.
MAROKKO HIRI INPERIALAK BUSA 10 EGUN .. 47.100 pta.
MAROKKO ATLAS SAHARA BUSA 12 EGUN ... 55.900 pta.
ITALIA BUSA 12 EGUN ........ 55.700 pta.
ITALIA BUSA + ABIOIA 12 EGUN ........ 64.900 pta.
EUROPA ERDIALDEA BUSA 13 EGUN ........ 61.900 pta.
EUROPAKO MUINA ABIOIA + BUSA 12 EGUN .. 74.600 pta.
INGLATERRA ESKOZIA ABIOIA + BUSA 11 EGUN .. 76.300 pta.
ESKANDINAVIA ABIOIA 10 EGUN ........ 95.300 pta.
ESKANDINAVIA FIORDOAK ABIOIA 10 EGUN .. 102.900 pta.
TURKIA ABIOIA 15 EGUN ........ 94.400 pta.
GREZIA ISTANBUL KAPADOZIA ABIOIA 15 EGUN .. 94.700 pta.
GREZIA ISTANBUL ABIOIA 15 EGUN ........ 92.700 pta.
PANAVISION EUSKADITIK IRTEERAK DONOSTIATIK
PARIS HERBEHEREAK BUS 10 EGUN ........ 48.900 pta.
ITALIAKO BIRA HANDIA BUSA 10 EGUN ........ 72.900 pta.
ITALIA ARTISTIKOA BUSA + ABIOIA 9 EGUN .... 82.900 pta.
ITALIA MAJIKOA ABIOIA + BUSA 9 EGUN ........ 82.900 pta.
ERROMA NAPOLI SICILIA ABIOIA 15 EGUN ... 134.900 pta.
ITALIA OSOA ABIOIA 15 EGUN ........ 131.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK RHIN BUSA 10 EGUN ... 87.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK RHIN
ABIOIA + BUSA 8 EGUN ........ 73.900 pta.
AMSTERDAM RHIN OIHAN BELTZA SUITZA
ABIOIA + BUSA 10 EGUN ........ 86.900 pta.
TIROL VIENA PRAGA ABIOIA + BUSA 11 EGUN .. 89.900 pta.
PRAGA BUDAPEST VIENA TIROL
ABIOIA + BUSA 11 EGUN ........ 95.900 pta.

FRANZISKO GASKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRENTERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

GURE BIDAIAK IRAILEAN
INDIA/NEPAL 28 egun ........ 252.000
TAILANDIA 22 egun ........ 212.000
EGIPTO 19 egun ........ 148.000
ITALIA (busa) 12 egun ........ 53.900
EUROPA ERDIALDEA (busa) 13 egun ...... 54.800
FIORDOAK (busa+abioia) 14 egun ........ 93.900
GREZIA (abioia) 15 egun ........ 94.500
TURKIA (abioia) 15 egun ........ 88.900
TXINA (Parisetik) 15 egun ........ 217.900
KENIA 16 egun ........ 213.600
BRASIL 16 egun ........ 164.500
EEBB/KANADA 16 egun ........ 170.000
KUBA 15 egun ........ 176.200
ERRUSIA 15 egun ........ 154.800

TREKKING ETA ESPEDIZIOAK
ANNAPURNA 29 egun (Urria) ........ 298.000
ACONCAGUA 21 egun (Abendua) ...... 295.000
DOLPO 24 egun (Urria) ........ 373.500
ANNAPURNA (talde txikia) 29 egun (Azaroa) ..260.000
KANGCHENJUNGA 30 egun (Azaroa) .. 379.000
MOUNT MCKINLEY ALASKA
30 egun (92 Ekaina) ........ 280.000

Aduana kalea 5
Tfna.: (943) 61.51.77
Faxa: (943) 61.95.17
20300 IRUN

ERRO BIDAIAK

Urbieta 6
Tfna.:(943) 33.00.49
20120 HERNANI


# Errenteriako Andra Mari abesbatzak Argentinan emango ditu kontzertuak

DONOSTIA

Errenteriako Andra Mari Abesbatza bihar irtengo da Argentinarantz, Buenos Aires, Rosario, Mar de Plata eta Necoechean kontzertuak emateko. Aurten zilarrezko eztaiak ospatzen dituen abesbatza honek irailaren 1a arte egingo du bere ibilia. Aurtengo ospakizunak direla eta, Euskadiko Orkesta Sinfonikoarekin gabon kantaz osotutako disko bat atera zuten eta abendura arte beste zenbait ospakizun egingo dituzte, baita bigarren liburu bat argitaratu ere 'Musikaren historia Errenterian' izenekoa.

Andra Mari abesbatza oso ezaguna da Eresbil musika artxiboaren gune izateagatik 18.000 partiturekin eta baita Musikasteren antolatzaile izateagatik ere. Musikastek, erdi ahazturik zeuden obrak berreskuratzen lan handia egin du.